

13	JARDUERA ACTIVIDAD	ADIBIDEA MODELO
	garapena <i>desarrollo</i>	13.1

PLAN ESTRATEGIKOAREN URTEKO EBALUAZIOA

Ikasturtea **2015-2016**

PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUAK ETA JARDUERAK

Helburuak eta Jarduerak

Lorpen-maila ¹

<p>1. Familien euskararen erabileraren aldeko inplikazioa gehitu.</p> <p>1.1. Euskararen aldeko inplikazioa tutoretza bileretako gai finkoa bihurtu.</p>	<p>Aurreikusitako jarduera guztiak egin dira.</p> <p>Tutoretza bileretako aktetan agertzen denez, ikasleen erabilera hobetzeko familien inplikazioaren garrantzia azpimarratu da. Bileren %75ean egitea aurreikusten zen lorpen bezala. Haur Hezkuntzan %100ean egin da. Lehen Hezkuntzako 1. zikloan %80an egin da, 2. zikloan %75ean eta 3. zikloan %60an.</p> <p>Orokorrean helburua lortu bada ere, 3. zikloko datuak hobetzeko beharra ikusten da. Maila baxu hauen zergatia aztertuta, ziklo honetan beste gaiak (etapa amaiera, ikastetxex aldatzea...) tratatu beharra izan da ustezko arrazoia. Ziklo honen bileren protokoloa berrikusiko da hau hobetzeko.</p> <p>Familiei gai hau behin eta berriro gogoratzea eraginkorra dela uste dugu, batez ere euskararen erabileraren aldeko jarrera eta motibazioa gehitzeko.</p> <p>Ikastetxean familien euskararen oinarrizko erabilera (agurrak, galderak...) gehitu dela antzematen da.</p> <p>Ez da lortu bilatzen genuen onarpen maila, %50a, adierazle hau neurtzeko dauden zailtasunengatik. Gure irudipena da familiek gehiago agurtzen dutela euskaraz tutoretza bileretan.</p> <p>Alderdi hau hobetu egin behar da, familiekin estrategia eraginkorragoak erabiliz.</p>
<p>2. Hizkuntza guztietako hizkuntz dimentsio guztiak (entzumena, irakurmena, mintzamena, idazmena eta interakzioa) era koordinatuan ebaluatu.</p>	<p>Ikasturtean zehar konturatu gara gure hasierako helburuak gehiegizkoak zirela eta ezin zirela ikasturte bakar batean hauek lortu.</p> <p>Euskara eta Gaztelanarako ebaluazio adierazleak adostu dira maila guztietarako.</p> <p>Koordinazioak lan handia dauka eta zailtasun handikoa da, hizkuntza ezberdinetako irakasleek irakasteko modu anitzak baitituzte. Baina argi dugu aurrera begira lan honek emaitza onak emango dituela.</p> <p>Datorren ikasturterako gure asmoa atzerriko hizkuntzako irakasleak ere jarduera honetan parte hartzea da. Aurrerantzean gainontzeko hizkuntza dimentsioen ebaluazioa bateratzen jarraitzea da gure helburua.</p>

¹ Jarraipen- eta lorpen-adierazleen emaitzak | Lortutakoaren balorazioa | Egindako plangintzaren eraginkortasuna

📌 HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK

	BARNE-EBALUAZIOETAKO EMAITZAK	EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK	JOERA	BALORAZIOA
EUSKARA	Ikasleen %80ak arlo hau gainditu du. %10ak 9 edo 10eko kalifikazioa lortu du.	Ikasleen %30a goiko mailan dago, %50a erdiko mailan eta %20a hasierako mailan. Geruza eta ISEC bereko ikastetxeek baino emaitza hobekak lortu ditugu.	Aurreko Ebaluazio Diagnostikoen emaitzak hobetu ditugu.	2015eko Hobekuntza Planean hartutako neurriak emaitza onak ematen ari dira, batez ere irakurmen eta idazmenean. Ez dugu mintzamina baloratu.
GAZTELANIA	Ikasleen %85ak arloa gainditu du. %15ak 9 edo 10eko kalifikazioa lortu du.	Ikasleen %25a goiko mailan dago, %55a erdiko mailan eta %20 hasierako mailan. Emaitza okerrenak idazmenean izan dira. Geruza eta ISEC bereko ikastetxeen puntuazio berdina lortu dugu.	Aurreko Ebaluazio Diagnostiko eta barneko ebaluazioen antzeko emaitzak lortu ditugu.	Emaitzak mantendu egiten dira. Idazmena hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke.
ATZERRIKO HIZKUNTZA 1	Ikasleen %80ak arloa gainditu du. %5ak 9 edo 10eko kalifikazioa lortu du.	Ikasleen %10a goiko mailan dago, %60a erdiko mailan eta %30a hasierako mailan. Emaitza okerrenak entzumenean izan dira. Geruza eta ISEC bereko ikastetxeen antzeko puntuazioa lortu dugu.	Hobekuntza txiki bat nabari da aurreko barneko ebaluazio eta ebaluazio diagnostikoen aldean.	Emaitzak hobetzeko neurriak hartzen jarraitu behar dugu. Entzumena hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke.
HIZKUNTZA ARLO/IRAKASGAJETAN	Ez ditugu adierazleak jarri hizkuntza arloetan ebaluatzeko. Lan hau datorren ikasturterako geratzen zaigu.			

📌 HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

- Familien euskararen erabileraren aldeko inplikazioa gehitu:
 - Lehen Hezkuntzako 3. zikloko tutoretza bileren gaiak berraztertu. Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetan egindako lanarekin jarraitu.
 - Gurasoei zuzendutako oinarriko euskarako klaseak antolatu hauek hizkuntzarekiko duten inplikazioa hobetzeko.
- Atzerriko hizkuntzetako ebaluazio-adierazleak adostu. Ebaluazio-probak adostutako adierazleetara egokitu eta proba hauek ikasturtean zehar erabili.
- Arloetako hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna ebaluatzeko adierazleak adostu.
- Komunikazio egoera gehiago sortu gaztelaniaz eta ebaluaziorako adostutako adierazleak erabili, ikasleei hauen berri argia emanez.
- Atzerriko hizkuntzako entzumenezko egoera gehiago sortu eta adostutako ebaluazio adierazleak erabili, ikasleei hauen berri argia emanez.